

## BIODIBERTSITATEA: Paisaiaren azterketa

Irteera egin aurretik interesgarria izan daiteke Urdaibaiko Paisaiari buruzko Unitate Didaktikoa begiratzea eta gelan lantzea. Material hau ikastetxean bertan daukazue. Interneten ere aurki dezakezue ondorengo helbidean:

[http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-6172/eu/contenidos/libro/urdaibaiko\\_paisaia/eu\\_I0687/indice.html](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-6172/eu/contenidos/libro/urdaibaiko_paisaia/eu_I0687/indice.html)

Zuen mailari dagozkion jarduerak 58. orrialdean aurkituko dituzue. Beste link interesgarri batzuk honako hauek izan daitezke, adibidez, landa eremuari buruzkoa:

<http://www.4.gipuzkoa.net/Corporac/agricultura/etorkizuneko baserrirantz/index.html>

Iturrarango lorategi botanikoari buruzkoa. Iturraranera bisita egitea ere aukera egoki bat izan daiteke. Toki hona baita bai espezie exotikoak bai bertakoak eta basoen dinamika aztertzeko.

<http://www.aiapagoeta.net>

Natura 2000 sareko europar batasuneko web gunea (hau ingelesez dago)

[http://ec.europa.eu/environment/nature/index\\_en.htm](http://ec.europa.eu/environment/nature/index_en.htm)



Natura zein paisaia aldetik balio handiko guneak daude Azpeitian: ibaiak, basoak, zuhaitzak, interes bereziko paisaiak. Horietariko bi aukeratu ditugu aztertzeko asmoz, Oñatz aldean kokatzen den Goena eta Loiolako Aterpetxe ingurua, hain zuzen.

Gela bakoitzak bi leku horietako bat aukeratu du eta 2-3 laguneko taldetan banatuta bertan beteko du ondorengo lan-fitxa. Talde bakoitzeko ikasle batek argazkiak atera ditzala.

## BIODIBERTSITATEA: Paisaiaren azterketa

1-Aurrean daukazun paisaiari erreparatu eta bete ezazu ondorengo koadroa bere osagaiak identifikatzeko.

ABIOTIKOAK	BIOTIKOAK	ANTROPIKOAK
Morfologia (lautada, mendia) .....	Landaretza motak (basoa, belardia, larrea, baratzak, baso-berritzeak...) .....	Biztanle dentsitatea (handia, txikia, ertaina) .....
Gauden lekuaren altitudea .....	Zuhaitz motak (zenbat bakoitzetik) .....	Populatzeta mota (sakabanatua, biztanle gune txikiak, hiria) .....
Lurzorua (harritsua, hondartsua...) .....	Hesi biziak (badaude ala ez daude) .....	Nekazaritza, abelzaintza eta basogintzako jarduerak .....
Maldak (handiak, txikiak) .....	Laborantzako espezie ohikoenak .....	Meategiak, harrobiak .....
Higadura (agerikoa ala ez) .....	Ikusitako edo entzundako animaliak .....	Industriak .....
Ura (erreka, lakua) .....		Turismo azpiegiturak .....
Haize nagusiak (Bibliografia kontsultatu) .....		Komunikazio bideak .....
Prezipitazioak (Bibliografia kontsultatu) .....		Ondare historikoa (elizak, dorretxeak, jauregiak) .....
Inguruko batez besteko temperatura (bibliografia kontsultatu) .....		Eraikin tradizionalak (baselizak, baserriak, errotak...) .....

# BIODIBERTSITATEA: Paisaiaren azterketa



INGURUMEN ETA LURRALDE  
"AMONAMENDU" SAILA  
DEPARTAMENTO DE MEDIOAMBIENTE Y  
ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

## NOLA ERABILTZEN DUGU LURRALDEA?

Lotura zuzena dago lurralde baten erabileraren eta bere paisaiaren artean. 2-Markatu taulan aukeratu duzun eremuari (Goenari ala Loiolari) egiten diren jarduerak.

HIRIGINTZA	KULTUR, TURISMO ETA KIROL JARDUERAK	INDUSTRIA ETA MEATZARITZA
<ul style="list-style-type: none"> <li>· Hirigune handia.</li> <li>· Biztanle guzti txiki edo ertainak.</li> <li>· Eraikin tradizionalak eta isolatuak.</li> <li>· Urbanizazioak (kadasatuak, familia bakar-frentzako etxeak...).</li> <li>· Interes historiko edota artistikoko eraikinak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Berdeguneak (parkeak, lorategiak).</li> <li>· Kanpina.</li> <li>· Hotel edo apartamentuak.</li> <li>· Kiroldegiak.</li> <li>· Hezkuntza edo kultur ekipamenduak.</li> <li>· Ingurumen ekipamenduak (interpretazio zentroa, bidegorria).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Industria pabilioi isolatuak.</li> <li>· Industriaidea.</li> <li>· Harrobia.</li> <li>· Meategiak.</li> <li>· Zabortegia.</li> <li>· Industriak edota meatzaritzako aurriak.</li> </ul>

3-Nola definituko zenukete paisaia hau? Arrazoitu erantzuna.

- Naturala
- Landa ingurukoa
- Hiri-ingurukoa
- Hirikoa

---



---

## BIODIBERTSITATEA: Paisaiaren azterketa

4- Identifikatu paisaian inpaktu batzuk, aukeratu bat eta aztertu gidoi honi jarraituz

INPAKTUAREN ONDORIOAK	<p><b>Ageriko ondorioak</b></p> <p>Airea: .....</p> <p>Ura: .....</p> <p>Landaretza: .....</p> <p>Fauna: .....</p> <p>Biztanleria: .....</p>	<p><b>Ezkutuiko ondorioak</b></p> <p>Airea: .....</p> <p>Azaleko urak: .....</p> <p>Lurrazpiko urak: .....</p> <p>Landaretza: .....</p> <p>Fauna: .....</p> <p>Biztanleria: .....</p>
KALTETURIKO ALDEA	<p>Inpaktuak zuzen eragin dion <b>esparrua soilik</b></p>	<p><b>Eremu zabala</b> ukitzen du, hemendik kilometro batzuetarainokoa.</p>
IRAUPENA	<p>Inpaktu <b>iragankorra</b></p> <p>Aldi luzekoa</p> <p>Aldi laburrekoa</p>	<p>Inpaktu <b>iraunkorra</b></p>
ITZULGARRITASUN MAILA	<p><b>Itzulgarria:</b> inpaktua eragiten duten zioak desagertuz gero, lehenagoko ingurumen egoerara itzul daiteke.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>· <b>Arina:</b> denbora laburra behar du onbideratzeko.</li> <li>· <b>Ertaina:</b> epealdi luzea behar du</li> <li>· <b>Gogorra:</b> zuzentzeko neurriak behar dira.</li> </ul>	<p><b>Itzulezina:</b> ezin da lehenagoko egoerara itzuli edo epealdi luzeegiak edota gaur egun gauzatu ezinak diren neurri zuzentzaileak behar dira.</p>

5- Aldagai horiek aintzat hartuz, zer deritzozue aztertutako inpaktuari:

- Arina
  Larria
  Oso larria

6- Zein alternatiba edo neurri zuzentzaile har litezke?

- .....  
 - .....  
 - .....  
 - .....

# BIODIBERTSITATEA: Paisaiaren azterketa



7-Goenako edota Loiolako paisaiaren kalitatea aztertzeko, sei alderdiri erreparatuko diegu ondorengo taulaz baliatuz

<b>Morfologia</b>	Erliebe menditsu nabaria	Forma eta tamaina anitzeko erliebea	Osagai nabarmenik gabekoa: muino leunak, ordokiak,...
	5 PUNTU	3 PUNTU	1 PUNTU
<b>Landaretza</b>	Landaretza mota ugari	Aniztasun ertaina: mota bat edo bi nagusitzen dira erliebean	Aniztasun eskasa
	5 PUNTU	3 PUNTU	1 PUNTU
<b>Ura</b>	Garrantzi handiko osagaia da paisaian: ur garbia.	Ura dagoen arren, ez da paisaiaren osagai nagusienetakoa.	Oso ur gutxi dago
	5 PUNTU	3 PUNTU	1 PUNTU
<b>Kolorea</b>	Kolore konbinazio eta kontraste ugari.	Kolore eta kontraste aniztasun ertaina.	Kontraste ez harmoniatsuak, aniztasun eskasa.
	5 PUNTU	3 PUNTU	1 PUNTU
<b>Bakantasuna</b>	Paisaia aparta eta ezohikoa eskualdean, osagai bereziak dituena.	Berezitasun batzuk baditu baina aparteko osagairik gabe; eskualdeko beste paisaiaren antzekoa	Paisaia arrunta, bereizgarririk gabekoa
	5 PUNTU	3 PUNTU	1 PUNTU
<b>Gizakien ekintza</b>	Eraikitako elementuek naturarekiko oreka gordetzen dute	Bat ez datozen elementu batzuk daude	Elementu batzuk eraikitzerakoan ez da ingurunea kontuan hartu
	5 PUNTU	3 PUNTU	1 PUNTU

Kalitate eskasa: 6-11 puntu bitartean  
 Kalitate ertaina: 12-23 puntu bitartean  
 Kalitate handia: 24-30 puntu bitartean

Puntuak, guztira: .....

## BIODIBERTSITATEA: Paisaiaren azterketa

8-Aztertutako eremuaren erabilera kontuan hartuta, nola imaginatzen duzu egon daitekeela Goena edota Loiolako Aterpetxeko ingurua 20 urte barru?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

9-Azertu duzuen paisaiaren (Goena ala Loiola) ezaugarriak eta balioa kontuan izanda, zer eskatuko zenioke Udalari eremu horren kudeaketan. Gogoratu, gelako proposamenak adostu egin behar dituzuela.

Gainera, zuen lanaren emaitzak beste ikasleei erakusteko ondo legoke hominurdiak egitea Goena edota Loiolako ateratako argazkiekin eta adostutako proposamenekin.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....